

Jakinarazten da Alkateak, 2020ko otsailaren 27an emandako dekretu baten bitartez, Tokiko Gobernu Batzarrak bezperan izandako bileran egindako erabaki proposamenak onartu zituela, horietako bat ondorengo hau delarik:

“2019ko maiatzaren 30ean erabaki zen Kirol Zerbitzuko eta Agorrosingo koordinatzaile plaza betetzeko deialdia arautuko zuten oinarriak onartzea.

Oinarrietan aurreikusitako oposizioaldiko frogak egin dira eta baita lehiaketaldian aurreikusitako merituen ebaluaketa ere eta honako hauek dira oposizioaldia gainditu dutenek guztira lortutako puntuazioa:

NAN	Guztira
72456066C	84,856
44684223F	81,436
35771973G	79,336
72465217Z	73,842
72585187Q	70,76
72573554K	68,24
44346213M	65,293

Gauzak horrela, prozesuaren epaimahaiak egindako proposamenari eta oinarrietan jasotakoari jarraituz eta baita Giza Baliabideen batzordearen proposamenari jarraituta ere, Tokiko Gobernu Batzarra osatzen duten 6 batzarkideetatik bertaratutako 4rek, aho batez, Alkateari ondorengo erabakia hartu dezala proposatzea erabaki dute:

1.- Amaia Zabaleta Hidalgo andrea (NAN: 72456066V) izendatzea Kirol Zerbitzuko eta Agorrosingo koordinatzaile plaza betetzeko funtzionarioa praktikaldian.

Praktiketako eta prestakuntzako epealdiaren iraupena hamabi (12) hilabetekoa izango da, 2020ko martxoaren 1etik hasita, eta denbora hori efektiboki burutu beharko du, eta, gainera, izaera kanporatzailea izango du.

Denboraldi hori amaitu aurretik, probaldian diharduen funtzionarioari buruzko txostena egingo du gainera daukan hurrengo buruak, eta erakutsi dituen gaitasun hauek hartuko ditu kontuan txosten horretan: Lanerako ahalmena eta errendimendu profesionala, erantzukizunaren eta efizientziaren zentzua, lanerako prestasuna eta inizatiba, eta lanarekiko agertutako interesa. Lantaldean integratzeko erakutsi duen gaitasuna ere hartuko da kontuan.

Praktikaldia bukatu eta 4. hizkuntz eskakizunari dagokion euskara-maila egiaztatzeko urte eta erdiko epea izango duela ohartaraztea. Horrela egingo ez balu, izendapena indargabetu eta eskubide guztiak galduko lituzke.

2.- Prozesuan ariketak gainditu dituzten beste izangaiekin, puntuazioak emandako hurrenkeran, lan-poltsa osatzea Agorrosin eta Kirol Zerbitzuko koordinatzaile plaza aldi baterako betetzeko premiei erantzuteko edo udaleko profil horrekin egon daitezkeen kontratazio-premiei erantzuteko; hau da lan-poltsa:

NAN	Lehentasuna/hurrenkera
44684223F	1
35771973G	2
72465217Z	3
72585187Q	4
72573554K	5
44346213M	6

Lan-poltsa hau indarrean sartuko da ebazpenarekin batera.

Lan-poltsak urtebeteko balioa izango du –indarrean jartzen denetik kontaktzen hasita–, baina urtez urte luzatu ahal izango da gehienez beste lau urtez, betiere Barne Batzordearen proposamenari jarraituz Alkate-Lehendakariak kontrakoa erabakiko ez balu.

Lan-poltsaren funtzionamendurako, Udalak 2006ko apirilaren 4an Alkatearen dekretuaren bidez onartua duen lan-poltsen erabilerarako barne araudiari jarraituko zaio.”

Ebazpenaren aurkako bideak

Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka Administrazioarekiko auzi errekurtsua jar dezakezu, Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian. Horretarako bi hilabeteko epea duzu, jakinarazpen hau jasotzen duzun hurrengo egunetik hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idazatian adierazitako Administrazioarekiko Auzi errekurtsuaren aurretik, berraztertze errekurtsua jar dezakezu erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean jakinarazpena jasotzen duzun hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Dena den, egoki deritzozun beste edozein errekurtsu ere jar dezakezu.

LEGE-OINARRIA: Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.c, 123. eta 124. atalak, Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioari buruzko 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. atala, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoan aldatua, eta lege bereko 46. atalak eta Kode Zibilaren 5. atala.

Bergara, 2020ko martxoaren 4a

